



EUSKAL IMAGINARIOA EZAGUTU, ARAKATU, LANDU

IRAKASLEA:

Josu Naberan ikertzailea


**ABENDUAREN 20TIK 22RA,
19ETAN**

BILBOKO GITE-IPES-en EGOITZAN

A) HISTORIA ETA MITOLOGIA

1) HISTORIAURREA:

-40.000etik erromatarren garaira. Hain denbora luzeetako historiak kultur taldeen izenak ugaltzera jo izan du. Garai jakin bateko taldeak aurrekoekin duen lotura argi eta garbi agertzen saiatuko da, gaur egungo ezagutzak ahalbidetzen duen neurrian. Beraz, hainbat kulturguneren izenak beren ingurune bertikalean nahiz horizontalean kokatuta eta argituta agertuko zaizkigu, garai bakoitzeko mapen laguntzaz.



2) Kulturgune ezberdinen elkarren arteko zerikusiarri garrantzia berezia emango diot, beraz. Nekez ezagut eta uler daiteke egungo Euskal Herriko neolitoa eta horren atzean zegoen pentsaera, adibidez, inguru zabalekoaren berri izan gabe.

3) Kultura bakoitzaren ezaugarri materialez gain, artea, sinbolismoa, pentsaera eta datu antropologikak zehazten ahaleginduko da, talde bakoitzaren irudi esanguratsuren bat testuari erantsiz. Horrela, arte eta arkeologia aztarnez gain, gure hizkuntzaren eta folkloreakaren harrobiaz ere baliatuko da, Arkeo-folklorea baita edozein ikuspegirako metodorik aberasgarriena, eta ez bakoitzak bere diziplinan isolatuta jardutea.

IZENA EMATEKO:
ipes.bilbao@euskalnet.net
edota 944790430 telefonoan
EUSKARAZ



www.gite-ipes.com

B) HIZKUNTZA ETA ANTROPOLOGIA

EUSKARAREN SORRERA ETA ARKITEKTURA:

euskararen erroak eta enborrak.

Erroak: Europako hizkuntza modernoa sortu zeneko unitate txikienak (behe, zi, arre, bi, hiru...). Enborrak: unitate horiekin eraikitako hitz emankorrak (bizi, hiri, arro.); eta toponimian Aragoe, Baiona, Bilbo. Mitxelenak latinean bilatu zuen maiz euskal hitzen jatorria. Eta batez ere antzinako testu idatzietan. Baina bide horrek ere bere mugak erakutsi ditu.

Izan ere, latina gure lurraldeetara sartu baino hamar edo hamabost mila urte lehenago sortu zen euskara egituratua Hizkuntza hori Europa osoan eta Mediterranioko ibar bietan egiten zen, geroago latina bera egingo zen legez. Geroago ere, Inperio erromatarra erori ondoko latin berantiarrak berba pila hartu zuen geruza iberiar, bereber eta abarretatik, egungo gazteleran argi eta garbi ageri denez. Geruza haiek euskal familiakoak zirenez euskal hitz pila daukagu.

